



ASISKLO

BURUKO illietatik oin-muturreko askazaletaraño berritu ezkerre ja zer mutilla Asišklo!

Ez dira gero egunero orlako mutillak sortzen.

Baña Asišklo sortu zan.

Bai; etzuten poz guchi bere gurasoak seme au egokitu zitzayotenean.

Lenbizikua izan bada, ta gañera azkenekua.

Batek nai, ta bestiak nai; batek musu ta bestiak laztan... ez dakit jan ere, nola biyen artian etzuten egin.

Biar bada, kalte aundirik izango re etzuten.

Gero, onlakuetan gertatzen dan bezela, mintsu azi zan.

Mendi baztarreko baserrietan mardul askuak azi tze n di r a aurrak, gašotasun askorik gabe.

Bai arrantzale echeetan ere, medarrak bai, baña bai gogorrek ere; an, kai gañian, lau ankian arraztaka dabiltzala. Zikiña bai ugari, baña eritasuna guchi.

Baña musu ta laztan gurasuak dabizkiten aurrak, geyeniari zer edo zer izaten dute.

Eta Asišklo'k zerbait izan biar zun, bada sendakiña etzan eche artatik irteten.

Diru zerbait baño geyuago, Asišklo'ren gurasoak izan biar zuten, ta etzitzayon sendakiñari gaizki etorri.

Mintsu izatia gaitz bat da, baña, onen ondorian, miñaren bildurraz gaizki azitzia, izan liteken gaitzik aundiyena.

Era orretan Asišklo azi zuten.

Nai zuben guziya egiñaz.

Eta era orretan mutilla alperrik galdu zuten.

Eziñ ezer lanketan asiko zan, gaitzaren bildurraz.

Zerbait erakusteko asmoan, maisu onak aukeratu zizkaten.

Baña, Ašišklo'ri ikaste orrek buruko miña egiten ziyon.

Eta miñaren izena aitatzia naikua zan, guraso zoro ayek, ikasketak baztarreratu, ta mutillak nai zuen guztiya egiten lagatzeko.

Egiyaz'ko miñak ziran, jayotzatik Ašišklo'k zebizkiyenak ez dakigu.

Baña, Ašišklo'ri ezin kontu arturik zebiltzan bitartian, egiyazko gaitzak arrapatu zitun gurasoak, eta ama aurretik, eta aita ondoren, biyak il ziran.

Ludian lagarik Ašišklo, guziyak ikusi zezaten gurasoen lasaikeriyak nolako ondorengoak lagatzen dituzten.

Izeba batekin bizitzera juan zan.

Lenago nai zubena egiten bazuben, gero zer esanik ez dago.

Gurasoen gandik nai aña diru jaso zuen, eta ori bera, bere kalte izan zan.

Gauza onik, biar zanik, ikasteko etzan izan.

Buruko miña egiten zitzaion ta.

Baña gauza charra ikasteko, orretarako etzegon miña'ren aitzakerik.

Gaiztakeri guzietan trebe zegon.

Gabian gaberdi, gau-chori egiñik, *kapeteritik* zurrut tokira an zebillen.

Noiz nai, moškortu ta, aidian fardel bat egiñik zekarten.

Orra nola gurasoak, miña'ri itzul egitea gatik, miñik audiyenak arrapatzeko bidian jarri zuten.

Lumatu baño len egatu, ezkondu biar zula buruan jarri zitzaion.

Eta nola nai zuben guziya egiten zuben, oraindik umia zala emastearen jabe eginzan.

Gizon onai, askotan emaste charrak gertatzen zaizkate, ta gizon charrai berriz emakumeik onenak.

Eta emakume onetan onenetako bat Ašiško'ren emastea gertatu zan.

Gurasuak jakin etzutena, arrek jakin zun; eta onian, onian, poliki, poliki, ezin esan liteke zenbateraño zuzendu zun bere zenarra.

Iñork ez lezake esan, emaste on batek zenbat on egin lezaken.

Ašišklo berak ere aitortzen zun.

Ala ziyon:

—Izugarri ona dek nere emastea. Gabian, berak ekentzen zizkiak oñetakuak.

—¿*Kapeteitik*, biurtzerakuan?

—Ez; *kapeteira* juateko asmoa artzen detanian.

A. DARRA